

# III. KONGRESUKO HAUTAGAITZEN BOZKETA

---

Sorturen nazio-zuzendaritza organoetara, Berme Batzordera zein Kontu Batzordera hautagaitzak aurkezteko aukera izan dute Sortuko kideek. Hautagaitza guztien behin-betiko zerrenda urtarrilaren 19 honetan argitaratuko da, Berme Batzordeak hautagaitza horien baliozkotasuna eta baldintzak bete direla ziurtatu ondoren.

Honako organo hauek bozkatuko dira 2022ko urtarrilaren 19ko 00:00etatik 2022eko urtarrilaren 21eko 23:59ra bitartean:

- **Nazio Kontseilua.** Nazio Kontseilua osatzen duen Nazio Idazkaritzaren Hautagaitzaren bloke osoa bozkatuko da batetik (hor, herrialde bakoitzeko arduraduna herrialde bakoitzean bozkatu beharko da, bloketik bereizita); Nazio Kontseilua osatzeko beste hamar hautagaiak bozkatuko dira bestetik, banan-banan; eta azkenik, beste hautagai bana bozkatuko da herrialdeka, herrialde bakoitzeko irizpideak kontuan hartuta.

- **Berme Batzordea.**

- **Kontu Batzordea.**

Kongresu prozesu honetarako akreditatuta dauden pertsonak edukiko dute bozkatzeko aukera, zehazki, zentsoa 7.936 lagunekoa da.

1) Telematikoa: [partehartu.sortu.eus](https://partehartu.sortu.eus) plataformaren bidez egingo da.

2) Presentziala: Auzo, herri eta eskualdeetan jarriko diren bozketa guneeetan egingo da.

Toki horien kokapena <https://sortu.eus/destakatua/non-egingo-dira-hautagaitzen-bozketak> helbidean ikus daiteke.